GABON AFARI MERKEA

Mendatako Migel Gorriñok kontatuta

Hemen *Olango* baserriaren ondoan Tusunungo izeneko lau solo dagoz, eta euren erdian sasi multzo haundi bat egon zan. Han Tusunungon etxetxo bat egon ei zan eta andragizonak bizi ei ziren pobre-pobre, antzinako denboretan ez hegoan oraingo beste gauza be eta… Gabon egun baten nabotan edo andre gizonak badoaz Tusunungora eta handixik sasi multzotik zozoak urten ei eban, rrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrr, behetik gora eta:

– Kontxo! Hementxe zozoak urten dau –esan ei eban gizonak–.

Eta andriek esan ei eutsan:

– Arra izan da ganera!

– Ez emea izan da ta –besteak–.

– Ezetz arra izan da ta!

– Ez dala, emea izan da eta! –atzera gizonak–.

– Ez, ez, ez…

Diskutidu eben, biok hasarratu eta apari barik ohera. Hor ba! Ha pasatu da, eta handik urte betera ostera be handixik pasatu ziran andre-gizonak, eta andreak orduan be esan eutsan baze:

– Hementxe igaz nik kulparik barik ederrak arrapo nebazan ba!

– Ene! ez naz akordetan –esan eutsan gizonak–.

– Bai, holantxik eta holantxik hementxe zozo batek urten euskun eta nik emea dala eta zuk arra dala ta…

– Ez horixe, nik emea zala baino!

Andretxoa listie zan eta aurreko urtean arra zala esan baeutsan aurton emea zala esan ebala diskutitzen eutsan, horixe ba! jakin eban etxean ez dagoela ezer afaritarako eta diskutiten bigarren urtean be afaria jan barik ohera gabon gabien.

Mendata gure geurea denontzat
Idoia Mallea Lamikiz
Mendatako Udala
Bilbo 2002